

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5490

EBAZPENA, 2008ko irailaren 18koa, Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena; honen bidez, Berdintasunaren aldeko 2008ko Emakunde Sarirako deialdia egiten da.

Irailaren 12ko 166/2006 Dekretuak Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria sortu eta arautu zuen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanarengatik nabarmendu diren pertsona fisiko nahiz juridikoei jendaurreko ezagutza egitearren eta lan hori jendaurrean nabarmentzearen; emakumeek egindako lana aintzat hartzearen eta emakumeei boterean dagokien lekua itzultzearen egindako lanetan nabarmendu baitira pertsona horiek, edo sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzearen egindako lanetan.

Hortaz, 2008rako sarirako deialdia egitea dagokio orain, dekretu horren lehenbiziko artikulua aplikatze aldera.

Hori dela-eta, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Berdintasunaren aldeko Emakunde sarirako deialdia egitea, 166/2006 Dekretuaren arabera eta ebazpen honetan onartzen diren eta eranskin gisa doazen oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Interesatuak berraztertze errekurtsoa jar dezakete ebazpenaren aurka, Emakunde–Emakumearen Euskal Erakunde zuzendariari zuzenduta; hilabeteko epea izango dute horretarako, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan; bi hilabeteko epea izango da horretarako, Ebazpena EHAA n argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eragiten.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 18a.

(214/2006 Dekretuaren 18.2.k) artikuluan xedatzen denaren arabera)

Emakunde-Emakumeren Euskal Erakunde idazkari nagusia,
MIREN ARANTZA MADARIAGA ABERASTURI.

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

5490

RESOLUCIÓN de 18 de septiembre de 2008, de la Directora de Emakunde–Instituto Vasco de la Mujer, por la que se convoca el Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2008.

El Decreto 166/2006, de 12 de septiembre, por el que se crea y regula el Premio Emakunde a la Igualdad instituye dicho Premio, con el fin de destacar y reconocer públicamente la actuación de aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas que se hayan distinguido por su labor en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres, realizando actuaciones dirigidas al reconocimiento del trabajo de las mujeres y de su empoderamiento o a promover la igualdad de derechos y oportunidades entre sexos.

Procede, por tanto, convocar este Premio para el ejercicio 2008, en aplicación del artículo 1 del mencionado Decreto.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo único.– Convocatoria.

Convocar el Premio Emakunde a la Igualdad, con arreglo al Decreto 166/2006, así como a las bases que se aprueban y figuran en el anexo a la presente Resolución.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Directora de Emakunde–Instituto Vasco de la Mujer en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente a la fecha de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2008.

(En virtud de lo dispuesto en el artículo 18.2.k) del Decreto 214/2006)

La Secretaria General de Emakunde–Instituto Vasco de la Mujer,
MIREN ARANTZA MADARIAGA ABERASTURI.

ERANSKINA

BERDINTASUNAREN ALDEKO 2008. URTEKO EMAKUNDE SARIRAKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Berdintasunaren aldeko 2008ko Emakunde Sari-rako deialdia egitea da ebazpen honen xedea. Sari horren bidez, ezagutza egin nahi zaio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoen, publiko nahiz pribatuen jardunari, eta jardun hori jendaurrean nabarmendu nahi da; emakumeen lana aintzat hartzeko eta emakumeei boterean dagokien lekua itzultzeko eginkizunetan nabarmendu direnei eman nahi zaie saria, eginkizun horiek gauzatzeko jardun, ekintza, lan edo proiektuen bidez alderdi garrantzitsuren batzuetan hobekuntzak ekarri dituztenei, alegia; edo, beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen laguntzeko eginkizunetan nabarmendu direnei; edo sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnei.

Bigarrena.– Sariaren diru-kopurua.

Sariaren diru-kopuru gordina 14.000 euro da.

Hirugarrena.– Hautagaiak aurkeztea.

1.– Hautagaiak aurkezteko epea 2008ko azaroaren 3an amaituko da.

2.– Hautagaiak aurkeztean, hautagai horiek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egin duten ekarpena egiaztatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da, bai eta egiaztapen horri dagozkion agiriak ere. Horiek guztiak Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan aurkeztu beharko dira (Manuel Iradier kalea, 36 zk., 01005 Vitoria-Gasteiz), edo posta ziurtatuaren bidez edo administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako moduetako edozeinen bidez igorri helbide horretara bertara.

3.– Aurreko paragrafo horretan aipatutako agiri horiekin batera, adierazpen bat ekarri beharko da, zin eginez ez zaiola hautagaiari sekula administrazio-zuzenbidearen arloko zigorrik eta zigor-zuzenbidearen arloko zigorrik ezarri sexua dela-eta bazterkeriarik eragin izanagatik, eta ez zaiola, orobat, legezko debekurik ezarri diru-laguntza publikoak eskuratzeko.

4.– Beharrezkoa dela uste izanez gero, Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundeak informazio gehiago eskatu ahal izango du.

5.– Aurkeztu eta saririk jaso ez duten lanak, 2009ko martxoaren 1a baino lehen berreskuratu ahal izango dituzte egileek. Administrazioak ez du hartuko epe horretan berreskuratzen ez diren lanen ardurarik.

Laugarrena.– Saria esleitzeko irizpideak.

Saria nori esleitu ebazteko, epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan; kasu bakoitzean, ponderazioa antzekoa izango da:

ANEXO

BASES DE LA CONVOCATORIA DEL PREMIO EMAKUNDE A LA IGUALDAD PARA EL AÑO 2008

Primera.– Objeto.

El objeto de la presente Resolución es convocar el Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2008, cuya finalidad es destacar y reconocer públicamente la actuación de aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas que se hayan distinguido por su labor en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres, realizando acciones, trabajos o proyectos que hayan supuesto la mejora de aspectos significativos en el reconocimiento del trabajo de las mujeres y de su empoderamiento o contribuyan con su trayectoria de manera destacada a la valoración y dignificación del papel de la mujer, o en la promoción de la igualdad de derechos y oportunidades entre sexos en Euskal Herria.

Segunda.– Dotación.

El premio tiene una dotación bruta de 14.000 euros.

Tercera.– Presentación de candidaturas.

1.– El plazo de presentación de candidaturas finalizará el día 3 de noviembre de 2008.

2.– Las candidaturas habrán de ir acompañadas de una memoria y de la documentación que acredite la contribución a la igualdad de mujeres y hombres, y se presentarán directamente en el Instituto Vasco de la Mujer-Emakumearen Euskal Erakunde, c/ Manuel Iradier, 36 - 01005 Vitoria-Gasteiz, o bien se remitirán por correo certificado o por cualquiera de los medios previstos en la normativa de procedimiento administrativo.

3.– Junto con la documentación señalada en el párrafo anterior, deberá adjuntarse declaración jurada de la inexistencia de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni de hallarse incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para la obtención de subvenciones o ayudas públicas.

4.– En aquellos casos en que se estime oportuno, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer podrá recabar la presentación de la información complementaria que considere oportuna.

5.– Los trabajos presentados que no resulten premiados podrán ser recuperados por las personas autoras hasta el 1 de marzo del 2009, no responsabilizándose la Administración de los que no sean retirados en dicho plazo.

Cuarta.– Criterios de adjudicación.

Al objeto de tomar la decisión, el Jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios, siendo su ponderación similar para cada uno de ellos:

a) Hautagaiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lanean egindako ibilbidea.

b) Emakumeen lana aintzat hartzearen eta emakumei boterean dagokien lekua itzultzearen, edo sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzearen egindako jardun, ekintza, lan, eta proiektuek berez duten garrantzia.

c) Jardun, ekintza, lan edo proiektu horiek edo proposatutako pertsona horren ibilbideak gizartean duten oihartzuna eta eragina.

a) Trayectoria de la persona propuesta en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres en el que ha venido desarrollando su actividad.

b) Relevancia intrínseca de la actuación, acciones, trabajos o proyectos dirigidos al reconocimiento del trabajo de las mujeres y de su empoderamiento o a la promoción de la igualdad de derechos y oportunidades entre sexos.

c) Repercusión e influencia en la sociedad de la actuación, acciones, trabajos o proyectos, o trayectoria desarrollada por la persona propuesta.